

1958-VII-30

Donostian, bildu dira: I. M.^a Etxaide, buru, Lekuona, Irigaray, Villasante, Arrue, Lojendio ta Mitxelena euskaltzaiñak. Zugasti, Alvarez Emparanza, Irigoyen urgazleak.

Gure artean egon da Pierre Nairt jauna, Suezia-ko izkuntzalaria.

Oleaga jaunak ezin etorria adierazo dau.

Aita Manzisidor-en karta bat artu da eskerrak emonik urgazle izetau dalako eta prest dagoela aurrerantzean arreta geiagoz jarraitzeko.

Irigoyen-ek esaten dau zelan Bilbo-n Ayuntamentukoakaz berba egin ostean eskabide bat egin dan Euskaltzaindiak prestauko leukean Bizkaiko bertsolarien lenengo sariketea Bilbo-ko jaietan egiten dan joko ta dantzen astean sartzeko, Ayuntamentuaren laguntasunagaz. Beste alderdi batetik Euskaltzaindiak baimena eskatu dau jaialdi onetarako eta lortu dau. Egin bedi aal bada. Ain zuzen bere Euskaltzaindiak oso begi onez ikusten dau olango arazoetan emoten direan pausuak.

Irigaray jaunak liburu bat atera dau *Prosistas Navarros contemporáneos en lengua vasca. XX-garren mendeko Nafarroako euskal-idazlariak.* eta argitaratzaillea izan da "Principe de Viana" Iruñekoa. Zorionak emoten jakoz egin dauen lan ederragaitik.

Oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.